



HAL
open science

Txillardegia eta Euskara Batuaren kondairaz

Gotzon Aurrekoetxea

► **To cite this version:**

Gotzon Aurrekoetxea. Txillardegia eta Euskara Batuaren kondairaz. www.gipuzkoakultura.net, 2004.
artxibo-00072376

HAL Id: artxibo-00072376

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00072376>

Submitted on 24 May 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Txillardegi eta Euskara Batuaren kondairaz

“Euskera gaitu, osatu, batu, gaurkotu, zorroztu eta aberastu egin behar dugu”(*Huntaz eta Hartaz*, 76)

Gotzon Aurrekoetxea

EHU

2004-09-28

Txillardegiren euskararekiko kezka laburbiltzen duen bere esaldi batekin hasi nahi izan dut nire berbalditxoan, jardunaldi hauen izenburuari oso loturik agertzen delako.

Kritikatua eta marginatua izatetik inor gutxi “libratzen” den gure Herri honetan, Txillardegi gu tarteko rankingean urte askoan goi-postuetan izan dugula esateak ez duela inor harrituko esango nuke. Baina, zaharrek zioten legez, ez dagoenez izurriterik ehun urte irauten duenik, gure Jose Luisi ere amaitu zaio “basapizti beltza”ren garaia, itxuraz. Eta orduko bazterketa eta jazarpena, azkenaldion, omenaldi bihurtu den honetan zorionean gaude eta pozik, inork merezi badu gure Jose Luis merezimendu bakoa ez delako.

UEUk egin zion lehena, oker ez banago, eta lehena ez bazen izan lehenengoetakoa; ondoren etorri dira hango eta hemengo elkarte, erakunde eta abar. Eta ez dira amaitu, eta ez daitezela buka.

Jaso dituen omenaldietan esandakoak gogoan izanik, zaila da ezer berririk esatea, ezer originalik plazaratzea, ideia asko jaulki eta argitaratu baitira han-hor-hemen; guk irakurtzen ditugunetan (dena ez dugu irakurtzen eta) gehiago besteetan baino, hala ere. Ahaleginduko naiz agindu didaten gaiari lotzen eta perspektiba berri bat erabiliz jorratzen.

ooOoo

- *Akitu zirea?*
- *¿?*
- *Akitu ahal zera?*
- *Ez dut konprenitzen.*
- *Ia nekatu zeran, ia... si vous êtes fatigué.*
- *A! Ia unatu naizen?... (Zeruko Argia, 1970).*

Saran berari gertatutako pasadizu hau erabili zuen Txillardegik 1970. urtean euskara batuaren beharraz kazeta baterako idatzitako artikulu batean. Nik hona ekarri gura izan dut, hain zuzen ere, dialektologian profesionalki aritzen garen arren, hizkuntzaren alde eta erabilpen desberdinak taxuz bereizi behar direla uste dugulako. Euskararen ugaritasunak elkar ulertzea behin baino gehiagotan zaildu egin digulako.

Esan behar dut aurrera baino lehen ez dudala euskara batuaren historiaz jardungo; ez naiz euskara batuaren urrats guztiak zehazten arituko, Txillardegik egindako lanaz baino, ikuspuntu partziala izan arren (bere inguruan lan egin eta merezi duten asko eta asko ez baititut aipatuko), aberatsa eta emankorra dela deritzot.

Txillardegi hizkuntzaren normatibitateaz arduratu arren euskalkiez ere asko baino gehiago dakien euskalaria dugu: ez zait erraz ahaztuko behin UEUko ikastaro batean Arratiako Areatzako mintzaeran berba egin zigun egun hartaz: “To! Giputz bat bizkaieraz berba egiten!” (esan nuen neuretzat). Lehen aldiz entzuten nuen giputz bat bizkaieran hitz egiten eta, gainera, nire etxeko arratieraz!

Nioenez edo esatera nindoanez, Txillardegi dugu nire ustez euskararen normatibitate edo arautzeaz gehien arduratu den edo gehien idatzi duen hizkuntzalaria: euskara batuaren beharra inork baino ozenago eta lau haizetara aldarrikatu du; euskara batuaren eragile, teorizatzaile, txostenegile, gidatzaile, hedatzaile eta defendatzaile handienetakoa dela esaten badugu (eta gauza asko esaten dugu) ez dugula huts handiegirik egiten esan daiteke.

Eta hori diogu, bai EBren sorreran funtsezko lana eta sortu ondorengo garapenean aitzindari lana egin duelako.

1. Txillardegi euskara batuaren eragile

Txillardegi ez zen lehena, bistan da, euskara batuaren beharraz ohartu zena. Euskaltzaindiaren sorrerarekin batera sortu zen euskara batu edo osotuaren beharra. Bere lehen artikuluko d) epigrafean ondoko hau irakurtzen da: “Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea” (*Euskaltzaindiaren arautegi eta barne-erregelak*, 65). Baina praktikan ezer gutxi egin zuen Euskaltzaindiak gerra aurreko urteetan, Boussain eta Campiónek burututako txostenaz gain.

Gerra ondoren berriro piztu zen euskara batuaren beharraz eztabaida. Gerra aurreko proposamen desberdinen gainean beste batzuk ere plazaratu ziren. Horien artean garrantzitsuenak ondokoak izan ziren:

- F. Krutwig 1943 (“Unificación de los dialectos vascos” txostena aurkeztu zuen Euskaltzaindian) lapurtera klasikoa proposatuz.
- S. Altubek 1946an “La unificación de euskera literario” txostena aurkeztu zuen Euskaltzaindian Baionan.

Beraz, mende erdi lehenagotik zelan edo halango ardurarekin jardun izan zuten batzuk edo bestek. Ez lehena baina bai ziurrenik, eta ez izan zalantzarik, kemen gehien erakutsi duena euskara batuaren beharraz euskaldunok ohartzeko.

Nondik etorri zitzaion ingeniari gazte eta galant hari (hala iruditzen zait sasoiko argazkiak ikusiz) euskararen aldeko grina? Esan daiteke, bere existentzialismoak eraginik, euskararen aldeko militantziak bideraturik, euskaraz bizi nahiak bultzatuta eta euskara hutsean bizi ezinak behartuta ekin ziola euskara batuaren aldeko borrokari... euskararen egoera itogarriak, alegia.

Euskararen aldeko borroka eta euskararen beharrak hizkuntzalari bihurtu zuen Txillardegi (*EHH*, 136): beraz, esan daiteke Txillardegi istripuz egin zela hizkuntzalari. Bada, zorioneko istripua!

Batzuk “Euskara batuaren aitzindari”tzat jo dute, nik euskara batuaren aitatzat hartzeko proposamena egiten dut hemen. Batek baino gehiagok dioke: ha zelango harrokeria! Ba, horiei Jose Luisek hitz egitean noizbehinka erabiltzen duen tik bat erabiliz, “a los hechos me remito” esango nieke. Eta aitatasunaren proposamena onartzen badidazue ama nor izan zitekeen asmatzea ez da hain zaila: ama Euskaltzaindiak behar zuela esaten utziko didazue? Ikusten duzue, ezkontza perfektua! Eztegu perfektua eta sortu dutena, umea ez dugu esango, haurra esango dugu inor ez dadin desbideratu; ba nioen legez haurra ere ez da makala izan! Gertatzen dena da gero dibortzioa ere legeztatu dela eta horretan ere dibortzio perfektua gertatu dela esan liteke.

Ezein izatek sortzeko, jaiotzeko “hazia” behar badu Euskara Batuaren hazirik emankorren eta iraunkorrena Txillardegiren lana izan dela esatera ausartzen naiz. Aitzindari baino gehiagotzat daukat nik behintzat gure Joxe Luisek EB sortzeko garaian egindako lana. Gertatzen dena da hori aldarrikatzea edo esatea ez dela politikoki zuzena izan luzaroan.

Honekin ez dut esaten Txillardegi izan ez balitz ez zela EBrik izango, ezta gutxiago ere. Baina bera ez balitz izan beste batek egin beharko zuen bere lana.

1956ko (eta ez 1968ko) Arantzazuko batzarraren kariatara Euskaltzaindiari egiten dion “Karta idigia” da Txillardegiren idatzizko lehen erreferentzia inprimatua gai honetaz (*Euskera* I (1965), 245250; orain *EHH*, 148). Bertan “Euskeraren beraka gorria”, “Euskerak eskatzen duen jokaera ta gurea”, “Asmo geiegi ta egite gutxi” eta abarrez mintzatzen da.

“Batasunaren Bidea”, 1958ko abenduaren 3an Euskaltzaindiari egiten dion bigarren txostena Euskalzaleen Biltzarrean (*Euskera* IV, 1959: 150-170; *Euskal Herriak Erdal Herrietara*, 171-193; *Euskararen Aldeko Borrokan*, 25-45). Berak aitortzen duen legez Mitxelena lanetatik atxikia (*EHH*, 150) den lan honek berebiziko garrantzia dauka euskara batuaren aldeko bere borroka pertsonalean. Lan sakona da (21 orrialde). Txostena irakurtzen baduzue, gomendagarria da, konturatuko zarete proposatzen dituen gauza asko hala gauzatu direla, horretarako urte andana bat behar izan bada ere.

Eskari funtsatuak egin arren, halere orduko Euskaltzaindia ez zegoen berrikuntzak egiteko sasoian; egoeraren berri izateko nahikoa da Txillardegiren hitzaldia amaitu bezain laster Mitxelena esandakoak gogoratzea: “Nire ustez, alegia, gutxi gora bera bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditekianik” (*Euskera* IV, 1959: 171).

Euskaltzaindiak batasunera begira urratsik ematen ez bazuen ere, Txillardegik ere berean jarraitu zuen, kemenez eta etsi gabe. Hitz hau bere bizitzan inoiz agertu ez den horietako bat dela esango nuke. Etsipenik ezagutu ez duen horietakoa dela, alegia. Euskara batuaz ari garela ere, aipatzekoa da Txillardegiren etsipenik gabeko borroka funtsezkoa izan baita euskara batuaren bilakaeran.

Bere ideiak praktikan ipintzen hasten da: *Peru Leartzako* nobelan “h” erabiltzen hasten da, garaiko beste idazle batzuek bezala, horien artean Etxaide; halaxe dio liburuaren hitzaurrean: “Euskaltzaindiak “h”ari buruz iritzi tinkorik oraindik eman ez duelako, neurekixa darabilzkit auek; eta Etxaide’k eta gaurko beste zenbait idazlek bezela, “h” ori erabiltzen duten euskaldunai irakurtzea piska bat erraztutzeko asmotan, bokale bikoitzetan jarri dut liburu ontan (...). Liburuan agertzen diran nere irizpide auek, alaz ere, betirako ditudan iritziak ez dira, noski. Eta Euskaltzaindiaren esanetara nago” (*Peru Leartzako*, XII. or.).

Baina Txillardegiren bi ekintza erabakiorrenak, inolako zalantza barik, dimisio gutuna eta *Baionako Euskal Idazkaritzako* lana:

1.1. Dimisio gutuna

Euskaltzaindik bere dialektalismotik irteteko gogorik ez zuela eta euskara batua bultzatzeko ahaleginik egiten ez zuela ikusiz bere dimisio gutuna bidali zuen (1963ko abuztuan). Gutuna 1963ko iraileko *Enbatan* argitaratu zen (eta *Tierra Vasca-Eusko Lurra*-n urri eta azaroan; orain *EHH*, 161-167 eta *Euskararen Aldeko Borrokan*, 47-53). Gutunak eskariak eta salaketak biltzen ditu. Eskarien artean hauek:

- Euskararen ortografia erabakitzea.
- “Euskara osotuaren” “aditzaren konjugazioko paradigma osoa eta deklinazioak, gutxienez”.
- “Egun guzian eta egun guzietan euskara biziaren eginkizunez okupatuko” diren euskaltzaleez osatutako Jagon Saila abiaraztea.
- Diru-eske bat egitea Jagon Sailaren lanak aurreratzeko.
- Euskal eskolaren aldeko eskabidea egitea Madril eta Pariseko gobernuei.
- “Sei edo zortzi sari” antolatzea eskola liburuak argitaratzeko.
- Dei egitea Elizari apaizek “euskeraz egiteko duten beharraz”.
- Biltzarra Iparraldean eta urte berean egitea.

Bere euskaltzain-urgazletasunaren ukatzeak euskaltzainburua behartu egin zuen euskara batuaren aldeko urratsak ematera. Lojendiok ez zuen dimisioa onartu, baina hitza eman zion euskara batuaren aldeko lanak azkartuko zituela.

Hala ere Euskaltzaindia ez zegoen berrikuntzak egiteko sasoian. Are eta okerrago, itxuraz batasunaren aurkako joera indartu egin zen eta ez zen euskara batuaren alde urratsik egiten.

Gizaki bakoitzak bere garaiko izatea garrantzitsua dela diote (norbere belaunaldiarekin solidarioa izan behar dela, alegia), hori egia da. Baina egia da ere, garai bakoitzak ere behar duen gizakia sortzen duela; eta hirurogeikadako euskal kulturak behar zuen gizona izan zen Txillardegi.

1.2. Baionako batzarrak

Dimisioa egin arren ez zuen *antzarrak ferratzera* bidali euskararen arazoa ezta bere herria. EB sozialki sortzeko beste mugimendu batean parte hartzeri bideratu zuen bere energia. Hegoaldetik hanka eginik eta Iparraldean kokaturik *Euskal Idazkaritza*

Elkartea sortu zuten Michel Labéguérie abeslari eta diputatua lehendakari zela (nork ez du gogoratzen “Gu gera Euskadiko gazteri bakarra...”). Tartean ziren Irigarai, Madariaga, Benito del Valle... Baionako *Euskal Idazkaritza Elkartea*-ko lanek ere berebiziko garrantzia izan zuten euskara batuaren sorreran.

Elkarte honen proposamena (Baiona, 1964) da euskara batuaren hazia, zalantzarik gabe. 1958ko “Batasunerako bidea” txostenari orpoz orpo jarraitzen badio ere (Txillardegik idatzi zituen biak, berak hala aitortzen duenez -*EHH* 169), kasu honetan **hazia** banandu egin zen Ipar eta Hegoaldeko euskaltzaleen artean eta oso harrera ona izan zuela aipatu behar da (ikus besterik ez dago *EHH* liburuaren 169. orrialdean Mitxelena Txillardegiri egiten dion esker-gutuna). Oihartzun handia izan zuen txosten honek ondoko puntuak biltzen ditu:

- a. Idazkera
- b. Deklinabidea
- c. Aditza
- d. “H”dun hitzen zerrenda

Esan beharrik ez dago txostena, Laffiteren proposamenez egindako aldaketa txiki batzuk gorabehera, bere osotasunean onartu zela.

Txillardegi eta bere lagunak eraginkorrak baziren ere, etsaiek ere ez ziren atzean gelditzen eta bi astetara Frantziaren *fraternité* eta *égalité*ren izenean kanporatua izan zen eta eskuarteko lanek geldialdi berri bat ezagutu zuten.

Handik lau urtera ospatu ziren Arantzazuko batzar erabakigarrietan egoterik ez bazuen ere (erbesteratua zegoen eta). Ezin joana “Euskera osotuaren behar (...) gorria...” aipatzen zuen gutun batekin bete zuen.

Arantzazuko batzar hauetan sortu zen euskara batua ofizialki, ezaguna denez. Eredu urri hori garatu behar zen osoa izateko, hizkuntzaren alde guztiak batzeko. Txillardegiren lana ez zen bada Arantzazuko batzar haietako erabakietan amaitu. Indarberiturik jarraitu zuen eredu hori osatzen.

2. Txillardegi euskara batuaren defendatzaile

Baina, aldi berean, eredu berri horren defentsa ere egin behar zen “Euskara batua bai, baina zertarako?” leloa arrunta zen garai hartan. Izan ere, euskal idazleek ez zuten beharrik, ez zen euskarazko irakaskuntzarik... frankismo gorrienean euskal kontzientzia unerik apalenetan izanik euskararen alde agertzea asko izan behar zuen; zertan esanik ere ez euskara batuaren alde.

“Euskalkietatik euskerara” izenburua zuen artikulua batean *Zeruko Argian* (375 zenb.: 1970) honako hau idatzi zuen:

“Zer idatzi behar du zerbait esan nahi duenak: ekarri dabela, ekarri duela, ekarri duala, ekarri dula, ekai dola, ekharri dila, ala ekharri dila? (...)

Eta ez esan, gero, gauza hauek txikikeriak direnik: gauza hauetxek dira-ta, aitzitik, gure hizkuntzaren “patois-keria” eta hondamena. Gaztelaraz ezin diteke idatz: “hemos ido”, “hemos ido” edo “amos io”, idazlearen gogara. Ez. Ez frantsesez edo errusieraz ere.

Zergatik bai euskeraz? Zertan desberdin, analfaetismoaren mailan ez bada? “Aberastasuna” esan ohi den saltsa-nahaspila hori, ez ote da, ordea, beste akats sakonago baten oihartzuna? Alegia: gure leinukeria, gure tribalismoa, eta Kondaira-Aurretik ezin irtetzea”.

DIAPOSITIBA

Eta artikulu berean irakurtzen den:

Euskalkietatik euskera osatu eta bakarrera pasa nahi dugunon asmoa, berriz, ‘traidoreek’ asmatutako txaplata omen”.

DIAPOSITIBA

Ez zen erraza izan behar batuaren aldeko defentsa garai hartan, eta ez naiz ari jada 1960. urtean, 1970ean baino. Hala ere, aitzindari baten gisara “Herri bat hizkuntza bat” leloan guztiz sinetsirik jarraitu zuen, zorionez, Euskal Herri bakarrak hizkuntza bakarra behar duela sutuki defendatuz. Eta 30-40 urte ondoren begira non gauden! Antipodetan!

3. EB-ren aitzindari eta gidatzaile

EBren garapenean eman behar ziren urratsen erakusle lanak ere egin zituen. Hona hemen batzuk:

- 1976an EBren hurrengo urratsak zein izan behar diren azaltzen du “Euskara batua: hurrengo urratsetara behar” izenburua duen idazki laburrean (*Hitz* 8, 41):
 1. Euskaltzaindiaren gidaritzapean *Ikastola Hiztegia* amaitzear zegoela iragarri eta “ikasi eta erabili ere egin behar dugu” dio.
 2. “Aditz batua osatu beharra dago” dio bigarren puntuan. Eta hika-zukako formak eskatzen ditu (18 urte beranduago, 1994-XI-25 onartuko da hikako aditz laguntzaile batua eta 3 urte geroago sintetikoa).
 3. Hiztegia: EB “hotz gertatzen da” (artifiziala dela) esaldia zenbat bider entzun izan ote dugu? Hoztasun hori kentzeko hiru proposamen egiten ditu: a) Adjektiboen urritasuna gaintitzeko “adjetibo-lerrokada on eta zehatz bat prestatu beharra dago”. Beharbada ez duzue denok ezagutuko baina argitaratu zen fotokopietan lerrokada hau “Adjetiboak” izenburupean oker ez banago, buruz ari naiz, ezpaitut aurkitu nire liburuen artean. Beharbada zuetako baten batek zehatz lezake informazio hau; b) esaerak: eta atera dira euskal esaerak biltzen dituzten liburuak; eta c) Fonetika-legeak. Euskararen eremu osorako baliagarriak ziren legeak aipatzen zituen (*ez dakit...*) eta “presa handiko”tzat jotzen zuen. Beste inork egin ez eta berak egin zuen geroago proposamena.
- Bere *Euskal Fonologia* liburuaren hitzaurrean honela dio:

“Euskara Batua”, beraz, maila idatzian finkaturik gelditu ondoren, maila mintzatuan ere behar da finkatu (...).

4. Txillardegi euskara batuaren garatze lanetan

Euskara Batuak txostenegile asko izan ditu, baina denetarik gailentzen zaigu gure Txillardegi: morfologian, fonologian, azentua... aitzindari izango dira bere lanak. Bakar batzuk baino ez ditut aipatuko:

4.1. Gramatikaz

- *Sustrai bila* (Donostia, 1970, eta aldaketa batzuk eginik 1977an *Oinarri bila*) garai hartan Gaur-eskoletan (euskaltegiak berriagoak dira) euskara irakasten jardun genuenok (*Alfabetatzen*, Rikardo Arregiren irudiaz, *Euskalduntzen*, *Hitz egin*, zein gerotxoago *Jalgi hadi* metodoekin) zenbat aldiz jo behar izaten genuen liburu honetara! Liburu beraren bi edizio 70. hamarkadan! Hori zen euskara berri eta hiritarraren zalantzak gainditzeko irakasle hasiberriok behar genuen tresna: izenburuak berak dioen legez euskalkietan barna bat egiten duten ezaugarriak bildu eta erdaratik bereizten dituztenak arbuiatzea. Liburua idazle klasiko eta bertsolarien adibideekin hornituta argitaratu zen, euskalki guztietako adibideak aurkitzen direlarik. Ez da lan makala! Oraindik OEHren ideia ere ezagutzen ez zela. Oraingo ahal teknologikoak izan balitu! 1970.eko argitalpenaren hitzaurrean “liburua gure herriarentzat lagungarri baledi pozik ninteke” dio; hago lasai Joxe Luis!
- *Batasunaren Kutxa* Aresti eta Kintanaren izenarekin argiratu zen liburuxkan, Mitxelena, Txillardegi, Altuna, Berriatua eta beste batzuk ere bildu ziren.
- *Euskara batua zertan den* (1974, Jakin) liburuan Arantzazuko batzarretatik ordura arte Euskaltzaindiak garatutako guztia biltzen du. Bertan irakur daitezke: Arantzazuko txostena, deklinabide batua, aditz batua, 1959ko Euskaltzaindiaren agiria euskal hitzei buruz, Baionako biltzarraren erabakiak, Euskal Herriko leku-izenak, Euskal izendegia eta batasunerako hiztegia.
- *Euskal gramatika* (1978) askok izan genuen euskara batuko lehen gramatika osoa, bere kolorezko testu eta taulekin.
- *Euskal Aditz Batua* (1979) liburuarekin ikasi nuen nik eta nire garaikide askok euskal aditz batua. Euskaltzaindiak urte batzuk lehenago (1973an laguntzailea eta 1977an sintetikoa) onartutako adizkiak modu pedagogiko argi batean argitaratzearen ardura eta meritua Txillardegirena izan zen.

4.2. Fonologiaz batuaz ere baditu bere ekarriak:

- “Fonetika baturantz (zenbait proposamendu)” (Bergarako jardunaldiak, 1978-IX-4/8). Bertan bokal, kontsonante, diptongo eta hiato, fonemen elkarketa eta erdaratikako bahiturez EBrako proposamenak egiten ditu.
- *Euskal Fonologia* (1980) liburuak bi zati ditu hitzaurrean azaltzen den legez: euskal fonologiaren tratatu bat batetik, eta “*Euskal Fonologia Batuaren oinarriak* jartzen saiatuko gara” (azpimarra berea da).
- “Euskalkien fonetika eta euskara batua” in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (Deustuko Unibertsitatea, 1981, 129-137).
- “Ahozkeraren baturantz” [*ELE* 10 (1992), 47-72] artikuluan honela dio: “Ahoskerari buruzko proposamenak egiteko unea da. Aurreko guztiaren osgarri (euskarri hobe) gure Batuak ahozko katearen kodaketa zehatza behar du. Behar

gorria, batzuek diotenaren aurka.” (49. or.), erdal fonologiaren arabera irakurtzen direla batuan idatzitakoak salatuz.

- “Fonologiaren normalkuntzaz zenbait berri” [*ELE* 11-12 (1993), 163-188] Europako hizkuntz txikietan arlo honetako normalizaziorako hartu diren erabakien errebasoa da.

4.3. Hiztegia: *Hizkuntzalaritza Hiztegia* (Elkar, 1982) taldeko zuzendaria Ana M. Toledorekin batera; eta artikulugile. Ondoko artikulua nagusien egile: “Euskararen ezaugarri nagusiak”, “Linguistika eta Matematika”, “Mintzamina gizonetik at”. Eta pila bat artikulua txiki bakarrean zein J.L. Iturrioz-ekin, M. J. Azurmendirekin, J. R. Zubiaurrekin...

4.4. Azentuaz hainbat proposamen egin ditu:

- “Proposamen bat azentuari buruz” (*Euskera* 31 (1986-2), 341-348 [Euskaltzaindiak antolatu Euskal Azentu eta Ebakeraz II. Jardunaldietan irakurritako txostena].
- “Azentuari buruzko proposamen bat” [*Ele* 2 (1987), 5-20].
- “Euskal azentuaz” [*Isilik* 9 (abe. 1987), 8-12]
- *Euskara batua: Iruñeko proposamena azentuari buruz* [Udako Euskal Unibertsitatea, 1987].

Ondorioak

Historiaren gainbegirada honetatik ondorioztatzen den lehen baieztapena ***Txillardegia dela euskara batua abian jartzeko ahalegin gehien egin duen euskaltzalea*** esan dezakegula uste dut.

Aldi berean, Txillardegia da euskara batuaren aldeko ekimen luzeena egin duena, zalantza barik.

Hirugarren ondorio gisa, Txillardegik ekoiztu duen guztia ikusiz gero euskara batuaren aitzindaria izateaz gain aita dela esan daitekeela uste dut.

Eskerrik asko hain arreta handiz entzun duzuelako eta eskerrik asko Jose Luisi Txillardegia gaztea deskubritzeko aukera eman didazulako, heldua ezagutzen nuen jada eta, zaharra, ez da inoiz zahartuko, bere irakasbidea beti jori eta lerdan izango dugulako.